

ARABAKO FORU ALDUNDIA

DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA

Administrazio Xedapenak

Foru Aginduak

**TOKI ADMINISTRAZIOAREN
ETA LURRALDE OREKAREN SAILA**

3011

180/2008 FORU AGINDUA, apirilaren 25ekoa. Honen bidez, Krispiñana 32. sektoreko Hitzarmen Batzarra Arabako Hirigintza Intereseko Elkarteen Erregistroan inskribatzen da. Sektore hori Gasteizko Hiri Antolamenduaren Plan Orokorrekoa da.

Gasteizko Udalak, Arabako Foru Aldundiko Erregistro Orokorrean 2008ko apirilaren 7an sarrera izan zuen idazki baten bidez, sail honetara igorri zuen Gasteizko Hiri Antolamenduaren Plan Orokorreko 32. sektoreko (Krispiñana) Hitzarmen Batzarra eratzeke erabakia. Era berean, batzar hori Arabako Hirigintza Intereseko Elkarteen Erregistroan sartzeko eskatu zuen.

Hirigintza Zerbitzuak espedientearen forma eta prozeduraren zuzentasunari buruzko txosten arrazoitua eman zuen, eta elkartearen erregistroan sartzeko proposamena egin.

Horregatik, aitortzen zaizkidan ahalmenak baliatuz, ondokoa

XEDATU DA:

Vitoria-Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko 32. sektoreko (Krispiñana) Hitzarmen Batzarra eratzeke buruzko espedientearen izapidetzeke eta forma edukialari onarpena ematea, eta batzar hori Arabako Hirigintza Intereseko Elkarteen Erregistroan sartzeko agindua ematea.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko maiatzaren 5a.- Toki Administrazioaren eta Lurralde Orekaren Saileko Foru Diputatua, ALFREDO DE MIGUEL AGIRRE.

**TOKI ADMINISTRAZIOAREN
ETA LURRALDE OREKAREN SAILA**

3012

181/2008 FORU AGINDUA, apirilaren 25ekoa. Honen bidez, Legutianoko 1+2 sektoreko (Ibarra) plan partziala aldatzeko espediente behin betiko onartzen da.

I.- AURREKARIAK

Lehenengoa.- 2008ko martxoaren 14an Legutianoko Udalak bidalitako ofizioa (sarrera erregistroko zenbakia: 4363) jaso zen foru aldundian. Ofizio horren bidez, udalak 1+2 sektoreko (Ibarra) plan partziala aldatzeko espediente behin betiko onartzen da.

Bigarrena.- Espedienteko agiriak aztertuta, ondokoak ondorioztatzen dira horiek izapidetzean:

A) Udaltzak 2007ko abenduaren 21eko ohiko osoko bilkuran plan partzialari hasierako onarpena ematea eta plan partzial hori hogeit eguneko jendaurrean jartzea erabaki zuen. Azken horretarako iragarki bana argitaratu zuen Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean (3 zenbakia, 2008ko urtarrilaren 7a), El Correo egunkarian (2008ko urtarrilaren 7a), Berria egunkarian (2007ko abenduaren 28a) eta udal iragarki taulan.

Disposiciones Administrativas

Órdenes Forales

**DEPARTAMENTO DE ADMINISTRACIÓN LOCAL
Y EQUILIBRIO TERRITORIAL**

3011

ORDEN FORAL 180/2008, de 25 de abril, de Inscripción de la Junta de Concertación del Sector 32 Crispiana, del Plan General de Ordenación Urbana de Vitoria-Gasteiz, en el Registro de Agrupaciones de Interés Urbanístico de Álava.

El Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, mediante escrito con fecha de entrada en el Registro General de la Diputación Foral de Álava del día 7 de abril de 2008, remite a este Departamento Acuerdo aprobatorio de la Constitución de la Junta de Concertación del Sector 32 Crispiana, del Plan General de Ordenación Urbana en Vitoria-Gasteiz, solicitando su inscripción en el Registro de Agrupaciones de Interés Urbanístico de Álava.

El Servicio de Urbanismo eleva informe razonado admitiendo la corrección formal y procedimental del expediente y proponiendo su inscripción en el Registro.

En su virtud, haciendo uso de las facultades que me competen

DISPONGO:

Aprobar la tramitación y el contenido formal del expediente de Constitución de la Junta de Concertación del Sector 32 Crispiana, del Plan General de Ordenación Urbana en Vitoria-Gasteiz, y ordenar su inscripción en el Registro de Agrupaciones de Interés Urbanístico de Álava.

Vitoria-Gasteiz, 5 de mayo de 2008.- El Diputado de Administración Local y Equilibrio Territorial, ALFREDO DE MIGUEL AGIRRE.

**DEPARTAMENTO DE ADMINISTRACIÓN LOCAL
Y EQUILIBRIO TERRITORIAL**

3012

ORDEN FORAL 181/2008, de 25 de abril, de aprobación definitiva del expediente de modificación del Plan Parcial del Sector 1+2 Ibarra en Legutiano.

I.- ANTECEDENTES

Primero.- En fecha 14 de marzo de 2008 y número de registro de entrada 4363 se recibió un oficio del Ayuntamiento de Legutiano remitiendo el expediente de la Modificación del Plan Parcial del Sector 1+2 Ibarra, con el fin de que le fuera concedida la aprobación definitiva si procediera.

Segundo.- Del examen de los documentos que componen el expediente se desprenden los siguientes hechos fundamentales en su tramitación:

A) En sesión ordinaria de fecha 21 de diciembre de 2007, se acordó aprobar inicialmente el Plan Parcial y someterlo a información pública por el plazo de veinte días, haciéndose efectiva mediante la inserción de los respectivos anuncios en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava nº 3, de 7 de enero de 2008, en el periódico "El Correo" de 7 de enero de 2008, en el periódico "Berria" de 28 de diciembre de 2007 y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento.

B) Jendaurrean egon zen bitartean ez zen alegaziorik aurkeztu. Beraz, udalbatzak 2008ko otsailaren 12ko ohiko osoko bilkuran behin-behineko onarpena eman zion espedienteari.

Hirugarrena.- Diputatu nagusiaren abuztuaren 8ko 186/2007 Dekretuan xedatutakoarekin bat etorritz, behin betiko onarpena eman ala ez Toki Administrazioaren eta Lurralde Oreka Saileko foru diputatuari dagokio, plan partziala aztertu eta espedienteak jendaurrean arazuko epea bete ondoren.

II.- OINARRIAK

Lehenengoa.- Dokumentuak, eremu pribatutik sustatutakoak, Legutianoko 1+2 sektorearen (Ibarra) antolamendua aldatzen du, halaxe jasotzen baitu eremu horretan indarrean dagoen hirigintza antolamenduak, Legutianoko arau subsidiarioen ondorioz gauzaturakoak -Legutianoko arau subsidiarioak apirilaren 11ko 365/2003 Foru Aginduaren bidez onartu ziren behin betiko-. Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak ezarritako prozeduraren arabera izapidetu da.

Bigarrena.- Eskatutako aldaketak ondoko helburuak ditu:

A) 11.4 artikulua 1.A idatz-zatia

Plan partzialaren Iparralde areako BN5 izeneko eraikinean biltzea merkataritza izan eta Iparralde areari dagozkion 1503 metro koadro eraikiak. Egun metro horiek BN3, BN4 eta BN5 blokeetan daude banatuta.

B) 11.4 artikulua 5. paragrafoa

Eskaileren eta igogailuen kutxek eraikinaren gehieneko goi ingurukaria ez gainditzeko debekua ezabatzen da.

Eraikinaren gehieneko goi ingurukariaren gaineko osagaien zerrenda zabaltzea, irabazizko aprobetxamendu handiagoa ez dakarten eskaileren eta beste egitura osagai batzuen itxiturak gehituz.

C) 11.5 artikulua 4. paragrafoa

Lurzoru pribatu gainean eraikin lerroen gaineko hegalean garaiera askea izan dadin baimentzea. Lurzoru publikoan, ordea, 3 metro izaten jarraituko du.

Hirugarrena.- Aldaketaren zergatia egitura eta funtzio irizpideetan oinarrituta zenbait parametroren malgutasun handiagoan datza. Horrek ez dakar, ordea, irabazizko aprobetxamendurik.

Horregatik, aitortzen zaizkidan ahalmenak baliatuz, ondokoa

XEDATU DUT:

Lehenengoa.- 1+2 sektoreko (Ibarra) plan partziala aldatzeko espediente behin betiko onartzea.

Bigarrena.- Foru agindu hau Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Hirugarrena.- Erabaki honek administrazio bidea amaitzen du. Beraz, interesdunek, egoki iritzi eta abiaraz dezaket beste edozein neurri gain, ondoko errekursoak aurkeztu ahal izango dituzte:

a) Zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko jurisdikzio horretako salaren aurrean, egintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik bi hilabete igaro baino lehen.

b) Nahi izanez gero, eta aipatutako errekursoaren aurretik, berraztertze errekurtoa foru agindu hau eman duen organoari. Hilabete izango da horretarako, honako hau argitaratu edo honen berri jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko maiatzaren 5a.- Toki Administrazioaren eta Lurralde Oreka Saileko Foru Diputatuak, ALFREDO DE MIGUEL AGIRRE.

B) Dentro del plazo de exposición pública no fue presentada alegación alguna procediendo el Ayuntamiento, en sesión ordinaria del día 12 de febrero de 2008, a la aprobación provisional del expediente.

Tercero.- De conformidad con lo dispuesto en el Decreto del Diputado General número 186/2007, de 8 de agosto, la aprobación definitiva, si procediese, corresponde al Diputado titular del Departamento de Administración Local y Equilibrio Territorial, a la vista del documento del Plan Parcial y del resultado de su exposición pública durante el plazo legal.

II.- FUNDAMENTOS

Primero.- El documento, de iniciativa particular, modifica la ordenación del Sector SR 1+2 Ibarra del núcleo de Legutiano según la Ordenación urbana vigente en dicho ámbito y resultante de las Normas Subsidiarias Municipales de Legutiano aprobadas definitivamente por Orden Foral 365/2003, de 11 de abril, y, ha sido tramitado siguiendo el procedimiento establecido en la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo del País Vasco.

Segundo.- La modificación instada tiene por objeto:

A)- Artº 11.4 – Apto. 1.A)

Reunir en el edificio denominado BN5 del área Norte del Plan Parcial, los 1503 m²c del uso terciario que corresponden a tal área Norte, en la actualidad distribuidos en los bloques BN3, BN4 y BN5.

B)- Artº 11.4 – Apto. 5

Suprimir la condición de que los frentes de las cajas de escaleras y ascensores no podrán sobrepasar la Envolvente Superior Máxima de la edificación.

Ampliar la relación de los elementos posibles por encima de la Envolvente Superior Máxima de la edificación, añadiendo los cerramientos de escaleras y otros elementos formales que no impliquen un mayor aprovechamiento lucrativo.

C)- Artº 11.5 – Apto. 4

Permitir que sobre suelo privado, la altura de los vuelos sobre las líneas de edificación sea libre, y que continúe siendo de 3.00m. sobre suelo público.

Tercero.- La modificación se fundamenta en que posibilita una mayor flexibilidad de algunos parámetros según criterios formales y funcionales, sin implicar mayor aprovechamiento lucrativo.

En su virtud, en ejercicio de las facultades que me competen,

DISPONGO:

Primero.- Aprobar definitivamente el expediente de modificación del Plan Parcial del Sector 1+2 Ibarra.

Segundo.- Publicar la presente resolución en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Alava.

Tercero.- Contra la anterior resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrán interponer los particulares cualquiera de los siguientes recursos, sin perjuicio de cualquier otra medida que se estime procedente:

a) Directamente, el recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos meses a contar del día siguiente al de la notificación o publicación del acto, ante la Sala de dicha Jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

b) Potestativamente, y, con carácter previo al recurso citado, recurso de reposición ante el mismo órgano que ha dictado la resolución, en el plazo de un mes a contar del día siguiente al de la notificación o publicación de la misma.

Vitoria-Gasteiz, 5 de mayo de 2008.- El Diputado de Administración Local y Equilibrio Territorial, Alfredo de Miguel Agirre.